

AMA-BIRJIÑAREN IGOERA ZERURA.

*Deitzen digu egun
Onetan Mariak
Guazen, kanta ditzagun
Beraren gloriak.*

Ama guziz maitea
Emen bildu gera,
Zure seme-alaba
Guziok batera;
Kantatu nai genduke
Arturikan era
Lurretikan zerura
Zure igoera.

Deitzen, etc.

Gorputza obian ta
Anima zeruan,
Ill-ondoan Maria
Onela zeguan:
Elkartu gabe ezin
Egon luzaruan
Ikusiko da iru
Egunen buruan.

Deitzen, etc.

Izar ederrez daude
Beterik zeruak
Aetatik lurrera
Orra aingeruak;
Illeran jarririkan
Bedratzi koruak,
Dardaratuaz ¡ay zeñ
Ederki! eguak.

Deitzen, etc.

Mariaren anima
Ondo egon arren,
Gloriaz beterikan
Orra non datorren;
Billa illik dagoen
Bere gorputz orren,
Zeruan lagun izan
Ditezen elkarren.

Deitzen, etc.

Jesus bera-re nola
Datorren begira
Amaren gorputz illa
Dagoen obira;
¡O aingeru santuak
Jozazute lira,
Zuen soñu eder ta
Kantak! ¿noizko dira?

Deitzen, etc.

Gorputz eta anima
Elkarturik biak
Serapiñ bat diruri
Pizturik Mariak:
Jaunak egin dizkio
Grazi ugariak,
Poztu zaitzete justu
Ta pekatariak.

Deitzen, etc.

Zuk ainbat edertasun
 Ez du illargiak,
 Eguzkia diruri
 Zure arpegiak,
 Izarrak berak beziñ
 Ederrak begiak,
 Jaunak egin ditu bai
 Zugan mirariak.

Deitzen, etc.

—

Jesusek arturikan
 Besoetan ama,
 Aingeruen erdian
 Zerura darama,
 Ara kontatu ere
 Eziñ ainbat palma,
 Zeru-lurrak kantatzen
 Dute zure pama,

Deitzen, etc.

—

Mariak egitean
 Zeruan sarrera,
 An daudenak diyote:
 «¿Zeiñ da aiñ ederra?
 »Jaunak bedeinkabeza
 »Zure etorrera,
 »Gurekin bizitzeko
 »Emendik aurrera.»

Deitzen, etc.

Begira nola diran
 Zeruetan ari,
 Batzuek soñu-jotzen
 Bestiak kantari
 Agur egiñaz danak
 Birjiña santari,
 Jartzen dute zeruan
 Ango agintari.

Deitzen, etc.

—

Irutasun santuak
 Zaitu koroatu
 Aingeru ta santuaz
 Gañetik goratu;
 Zure doai guziak
 ¿Nola gogoratu?
 Zuri begira iya
 Pozaz naiz zoratu.

Deitzen, etc.

—

Agur Ama maitea
 Ta arren aditu,
 Etsaiak gu galtzeko
 Milla asmo ditu;
 Anima ez dezagun
 Pekatuaz loitu,
 Zeruan zaite guzaz
 Sarritan oroitu.

Deitzen, etc.

PEDRO MIGUEL DE URRUZUNO.

1882-ko Urriaren 11-n.